

## 2018ko TOUR-a Euskal Herrian

### 1. Zer lortu nahi dugu?

Uztailaren 28an Frantziako *Tour*-a Euskal Herrian izango da; Parisko azken protokolozko etaparen bezperan erlojupeko erabakigarria jokatuko da Senpere eta Ezpeleta artean. 170 estatu ezberdinetan 78 telebista katek zabalduko duten unea; erakusleho paregabea estaturik gabeko herri honentzat. Saihestu ezinezko erronka estaturik gabeko herri batentzat munduaren aitzinean nor izan nahi duela ozen aldarrikatzeko, *Tour*-a ez baita kirol froga hutsal bat. Argi dago kirolaz ere politika egiten dela eta inoiz ez duela galdu «la grande boucle»-k hastapeneko espiritu hura, frantses nazionalismoaren aldarrikapena mahai petik hankak ebatsiz zabaltzeko tresna izatea alegia. Gu ere kiroltasunez politika egin beharrean gara beraz.

Iaz lau haizetara zabaldu zuten Tourra Alemanian, Dusseldorf hirian, hasi zela; 2019koa Bruselan (Belgikan) hasiko dela ere garbi asko iragarri dute. Eta aurten zer gertatuko da? 2018ko Tourra Euskal Herrian bukatuko dela «zabalduko» ote da ala uztailaren 14ko Dreux eta Amiens arteko etapa eta Lapurdiko erlojupekoa berdintsuak izanen dira?

Erakuts dezagun munduaren aitzinean euskal herritarrak garela eta entzunak izatea galdegiten dugula; baditugula lehentasunezko eta erroko galdeak, lau haizetara zabaldu nahi ditugunak.

#### Lema nagusia:

<b>Erakutsi diezaiogun munduari</b> <b>«You are in the Basque Country»</b>	<b>Clamons-le à la face du monde</b> <b>«You are in the Basque Country»</b>
<i>Euskal Herria aske izan nahi duen herria, bakea behar duen herria, burujabetza behar duen herria, euskararen ofizialtasuna behar duen herria, unibertsitatea behar duen herria, presorik behar ez duen herria, errefuxiatuei ongi etorri dagien herria, euskaraz bizi nahi duen herria...</i>	<i>un pays qui réclame la liberté, le droit de décider, l'officialité de sa langue, la justice sociale, la liberté pour ses prisonniers politiques, où les réfugiés sont bienvenus, qui a besoin d'accéder à la pleine souveraineté pour assurer sa subsistance, qui veut aussi vivre en euskara...</i>

#### Euskarriak :

- T shirt-a bat (diseinatzekoa), salgai jarriko litzatekeena.
- Plastikozko banderolak ikurrinarekin, bide bazterrean erakusteko. Horietan «You entered the Basque Country» leloa idatziko genuke.
- Ibilbidean ondoko pentzetan ekimen deigarriak (belarra luzatzen utzi eta moztuz banderolak adibidez).

### 2. Nola egin nahi dugu hori?

Xede horrekin, **aldarrikapen-festa gune nagusi bat** antolatu asmo dugu *Tour*-aren ibilbidean zehar (tokia zehazten ari gara) eta bertan egun osoko egitarau bat prestatu asmo dugu. Eguerdian **mosaiko erraldoi** bat egingo genuke eta lasterketa garaian, bereziki telebistaz zabalduko den unerako (azken txirrindularientzat alegia) gune horren inguruan bide bazterrak hartuko ditugu, eta ondoko pentzeetan ekimenak antolatu (dantzariak, joaldunak, herri kirolak, belarrezko muralak, fardoizko eskulturak, kontzertuak...).

Bestetik, lasterketa garaian gure aldarrikapena presente izateko, toki esanguratsuetan **harrera-guneak** antolatzea proposatzen da. Horrela ingurumari horretara lasterketa ikustera joanen direnek ekimenaren euskarriak non hartu izango dute. Tokian tokiko aukeraren arabera, ekimenak ere antola daitezke noski.

### 3. Zer eskatzen dizugu?

Tokian tokiko eragile zaren horri, galdera xume bezain zuzen batekin gatzokizu: zertarako zinatekete prest?

Adibidez:

- 1- Lema zuena egiteko (zuen sarean zabalduko duzue gure ekimena eta zerbait antolatzeko asmoa baduzue, lema hau gehituko duzue).
- 2- Ibilbidearen zati bat hautatzeko eta bertan «*You are in the Basque Country*» euskarriarekin bide bazterrean jartzeko.
- 3- Ekimenari logistikoki laguntzeko (dena delako txandak egiteko, edota ibilbide ondoko etxe edo pentzeren bat lortzeko...)
- 4- Ekimen bat antolatzeko (gune bat prestatzeko ardura hartu, bide bazterrean zerbait egin...)

Zuen gogoetarekin, bete formularioa otoi:

#### Tourra Euskal Herrian (2018-07-28)

<b>Eragilearen izena</b>		
<b>Harremanetarako pertsona</b>		
<b>Kontaktua bidea</b>	Telefonoa:	
	Eposta:	
<b>Zertarako prest zeundekete?</b>		

## 2018ko TOUR-a Euskal Herrian

### 1. Que voulons-nous obtenir ?

Le 28 Juillet prochain, le Tour de France arrivera au Pays Basque ; le « contre la montre » décisif avant la fameuse étape finale de Paris se disputera entre St Pée sur Nivelle et Espelette. 78 chaînes de télévision diffuseront ce moment permettant à pas moins de 170 états du monde d'avoir les yeux tournés vers nous. Cela représente une opportunité immanquable pour un pays qui veut revendiquer son statut.

Aussi, le Tour n'est pas une simple compétition sportive. Force est de constater qu'il véhicule des idées politiques, et plus précisément, une vision jacobine et centralisatrice de l'état. Bien que du temps se soit écoulé depuis, il est évident que la Grande Boucle reste un des symboles du nationalisme français. Nous devons pourtant relever le défi et agir en politique en gardant l'esprit sportif.

L'année dernière, les médias avaient largement diffusé l'anecdote d'un début de Tour de France organisé à Dusseldorf, en Allemagne. Un coup d'envoi à Bruxelles, en Belgique, est également annoncé pour 2019. Qu'en est-il pour cette année ? La nouvelle d'une fin de Tour en Pays Basque sera-t-elle relevée et diffusée ou cette étape sera-t-elle considérée à l'identique de toute autre ?

Montrons au monde qu'en tant que citoyens du Pays Basque, nous avons des revendications de fond légitimes qui doivent être entendues de tous."

### Revendication principale:

<b>Erakutsi diezaiogun munduari «You are in the Basque Country»</b>	<b>Clamons-le à la face du monde «You are in the Basque Country»</b>
<i>Euskal Herria aske izan nahi duen herria, bakea behar duen herria, burujabetza behar duen herria, euskararen ofizialtasuna behar duen herria, unibertsitatea behar duen herria, presorik behar ez duen herria, errefuxiatuei ongi etorri dagien herria, euskaraz bizi nahi duen herria...</i>	<i>un pays qui réclame la liberté, le droit de décider, l'officialité de sa langue, la justice sociale, la liberté pour ses prisonniers politiques, où les réfugiés sont bienvenus, qui a besoin d'accéder à la pleine souveraineté pour assurer sa subsistance, qui veut aussi vivre en euskara...</i>

### Supports :

- Un t-shirt (en voie de création), qui serait à la vente.
- Des banderoles en plastique avec l'ikurrina, à tenir au bord du parcours. La phrase « You are in the Basque Country » y serait écrite.
- Des manifestations pour interpeler les gens dans les espaces bordant le parcours (grandes banderoles, messages dessinés dans les herbes hautes,...)

### 2. Comment voulons-nous procéder?

L'idée serait d'organiser un lieu de fête revendicative principal près du parcours de passage du Tour. Une programmation d'animations diverses y serait proposée. A midi, tout le monde se rassemblerait

pour réaliser une mosaïque humaine géante. Durant la course, surtout au moment où les télévisions diffuseront le plus d'images (pour les derniers cyclistes notamment) les gens se disperseraient autour de ce lieu central pour occuper les bords de route et organiser des manifestations diverses sur le parcours (danseurs, joaldun, jeux traditionnels, messages visuels, sculptures, concerts...).

D'autre part, dans le but que notre revendication soit au maximum présente et portée par le plus de personnes possibles, des zones différentes seront prévues sur des lieux stratégiques pour distribuer les différents supports aux personnes venant voir le Tour. L'organisation d'animations sur ces points est également envisageable.

### 3. Pourquoi est-ce que nous vous sollicitons ?

En tant qu'acteur local, nous venons vers vous avec une question simple : que seriez-vous disposés à faire ?

Par exemple :

- 1- A vous approprier la revendication (et la diffuser dans vos réseaux ou dans les événements que vous seriez susceptibles d'organiser).
- 2- A choisir un lieu dans le parcours et à vous y installer avec les supports « You are in The Basque Country »
- 3- A aider l'évènement de façon logistique (à travailler dans des « txand », à obtenir un lieu supplémentaire autour du parcours,...)
- 4- A organiser une manifestation (choisir et préparer le lieu, proposer une animation,...)

Merci de remplir ce formulaire après concertation :

#### Tourra Euskal Herrian (2018-07-28)

<b>Nom de l'association/organisation</b>		
<b>Personne à contacter</b>		
<b>Voie de contact</b>	Tel:	
	Mail:	
<b>Que proposez-vous de faire ?</b>		